# Informazio Aperkaria
# Boletín Informativo

BIZKAIA JAURERRIKO ABOKATUEN BAZKUN OHORETSUA
2009ko MAIATZA

ILUSTRE COLEGIO DE ABOGADOS DEL SEÑORIO DE VIZCAYA
MAYO 2009

Nº 180 ZK.



## EL COLEGIO DE ABOGADOS CELEBRA SU FIESTA ANUAL

## ABOKATUEN BAZKUNAK URTEROKO JAIA OSPATU DU


... a ser un niño
... a crecer en libertad
... a una identidad
... a la salud
yo también tengo derechos
Infórmate en:
www.yotambientengoderechos.com
¡PARTICIPA!
1er CONCURSO NACIONAL ONLINE DE CORTOS SOBRE LOS DERECHOS DEL NIÑO
del 15 de marzo al 30 de mayo
FUNDACIÓN DEL CONSEJO GENERAL DE LA ABOGACÍA ESPAÑOLA
CONSEJO GENERAL DE LA ABOGACÍA ESPAÑOLA
plataforma de infancia españa
... a cuidados especiales
... a una familia
... a una buena educación
... a protección y socorro
... a no ser abandonado ni maltratado
... a no ser discriminado

*ITXAROPENEZKO hogeitabost urte, ametsetarako ordu zenbaezinak, loriazko minutuak... baina horien ostean errealitateak gure bihotzak astindu zituen, eta gure amets guztiak hautsi ziren sinesgogortasunez. Herri oso baten indarrak, salbuespenik gabe, ezin izan zuen ezer egin sakon-sakonetik griala balitz bezala ohoratzen genuen garaikurra lortzeko. Herri osoak lur noble batean errotuta zegoela sentitu zuen, nortasun erkidearekin, harrotasunez eta balentriaz betetako iraganaren oroitzapenarekin.*

*Heroien alde guztia ematen duen herriarentzat ikur batzuekiko jarrerari, adierazpen-askatasunari, porrotak garaipenak balira legez ospatzeari edo protagonisten ohore-zorrari buruzko eztabaidak ezin izan zuen ezer egin. Ametsa hautsi egin zen. Baina haustura horrek ezin izan zuen kalterik egin, poztasunez, itxaropenez, dibertsioz inguratutako orduak igaro ondoren. Ilusioa zurtuta baina irmo, sendo, apurtezin, bizimodu osoan alboan izango dituzten koloreen aldeko apustua egin zuten haurren bihotzetan, eztarrietan eta erretinetan.*

*Kimerak? Utopiak? Azaleko grina irrazionalak? Ametsak sinetsi behar ditugu eta amets horiek guretzat betetzen dituztenak heroitzat hartu behar ditugu. Amets horietako bat modu baketsuan eta askatasunez amets kolektibo bihurtzen denean, besterik gabe, zoriontsuagoak gara, eta gure bizimodua aurrera ateratzeko eginkizun gogorrari, zamak, zailtasunak, lana (garrantzitsua, zaila, ederra...) tartean direla, indarrez eta energiaz heltzen diogu.*

*Ihes-uneak igaro ondoren, gure zereginetara itzuli ginen, gure bezeroen gatazkak konpontzera, gure lankideekiko harremanetara, eta eginkizun horretan, orainaldiaren hasierari heltzen dioten elkargokide berriak Bazkunean sartzea ospatu ahal izan genuen, eta hogeitabost urte igaro ondoren iraganaren hasiera ospatzen dutenei egindako omenaldia bizi izan genuen. Horrez gain, urteroko jaian dibertitu ginen eta lankideekin hartu-emanak sendotu genituen, eta nostalgiaz, hilabete bitxi eta zoragarri honetan bizi izandako emozio indartsuak elkarbanatu genituen, kolore zuri-gorrien aldeko botoak berritzeko gogoz eta itxaropenez. Datorren ekainean ere ilusioa gurekin izan dadila.*

FUERON 25 años de deseos, incontables horas de sueños, minutos de gloria, pero tras ellos la realidad hundió su inapelable certeza en nuestros palpitantes corazones sumiéndonos en la incredulidad de los sueños rotos. Nada pudo hacer el aliento de todo un pueblo, sin excepción, para alcanzar un trofeo que, con esencia de grial, se veneraba desde lo más profundo de una forma de vida, que incluye sentirse enraizado en una noble tierra, con la percepción de pertenencia a una identidad común, con el recuerdo de un tiempo pasado lleno de orgullo y gestas.

Nada pudo hacer, después, el debate sobre la actitud hacia unos símbolos, sobre la libertad de expresión, sobre la oportunidad de celebrar las derrotas como si triunfos fueran, o sobre la deuda de honor contraída por los protagonistas, con un pueblo que lo da todo por sus héroes. El sueño se quebró. Pero esa quiebra, en realidad, nada pudo dañar al dejar tras de sí, miles de espíritus reconfortados por intensas horas de alegría, de esperanza, de diversión, la ilusión desconcertada pero firme, tenaz, inquebrantable, germinando apasionada en los corazones, las gargantas, y retinas de unos niños que apostaron, sin fin, por los colores que les acompañarán el resto de sus vidas.

Quimeras? Utopías? Pasiones frívolas, irracionales? Necesitamos creer en los sueños y mirar como héroes a aquellos que son capaces de cumplirlos para nosotros. Cuando uno de esos sueños se convierte pacifica y libremente en un sueño colectivo somos, simplemente, más felices y sentimos más fuerza y energía para afrontar la indescriptiblemente intensa tarea de llevar adelante nuestra vida, con sus cargas, dificultades, con nuestro trabajo (importante, difícil, hermoso...).

Tras los momentos de evasión volvimos a nuestras responsabilidades, a resolver los conflictos de nuestros clientes, a tratar con nuestros compañeros y en esa tarea nos encontramos con la oportunidad de celebrar la incorporación de nuevos colegiados, que afrontarán conmocionados el principio de su presente, y vivimos la posibilidad de celebrar un homenaje a quienes después de 25 años celebran el principio de su pasado, y exploramos el deseo de divertirnos y comunicarnos celebrando una fiesta anual que nos llevó a compartir, con nostalgia, las intensas emociones vividas en este extraño y maravilloso mes con el anhelo y la esperanza, aún callada, de renovar unos votos rojiblancos que nunca se resintieron. Que en este próximo mes de junio, la ilusión también sea con nosotros.

BIZKAIA JAURERRIKO ABOKATUEN BAZKUN OHORETSUA

ILUSTRE COLEGIO DE ABOGADOS DEL SEÑORIO DE VIZCAYA

**Decano** / *Dekanoa*
Nazario Oleaga Páramo

**Consejo de Redacción** / *Erredakzio Batzordea*
Ana Bermejo Arteagabeitia
Beatriz Barquín Torre
Ignacio Alonso de Errasti

**http://www.icasv-bilbao.com/**
**elboletin@icasv-bilbao.com**

**Colaboradores** / *Laguntzaileak*
César Gallastegi Aranzabal
Nahia Llona Fernández
Jorge Marqueta Andrés
Eduardo Ranedo Fernández
Idoia Manzárraga Zamalloa
Alberto Martínez Ruiz

Depósito Legal / *Legezko gordailua*
2.069/1987

# Soluciones bbk
# Autónomos y Profesionales




## …porque sus proyectos
## nos importan

www.bbk.es

bbk

# Informazio Aperkaria
# Boletín Informativo

**BIZKAIA JAURERRIKO ABOKATUEN BAZKUN OHORETSUA**
**2009ko MAIATZA**

**ILUSTRE COLEGIO DE ABOGADOS DEL SEÑORIO DE VIZCAYA**
**MAYO 2009**

**Nº 180 ZK.**













**NOTICIAS** 6 ***BERRIAK***

**COMISIONES** 12 ***BATZORDEAK***
Constitución del grupo de estudios de derecho del mayor — *Adinekoken zuzenbideari buruko ikerlan taldea sortu da*

Cena-coloquio con el fiscal Alejandro Torán — *Afari-solasaldia Alejandro Torán fiskalarekin*

**OPINIÓN** 14 ***IRITZIA***
Deducibilidad de las retribuciones a los administradores — *Administratzaileen oradainsari kengarriak*

**INFORMACIÓN** 16 ***INFORMAZIOA***
El Colegio de Abogados celebra su fiesta anual — *Abokatuen Bazkunak urteroko jaia ospatu du*

**JORNADAS** 24 ***JARDUNALDIAK***
Consideraciones para afrontar la crisis económica — *Krisiari aurre egiteko oharrak*

**BIBLIOTECA COLEGIAL** 30 ***BAZKUNEKO LIBURUTEGIA***

**NOVEDADES LEGISLATIVAS** 32 ***LEGEGINTZA BERRITASUNAK***

**SUPLEMENTO CULTURAL** 34 ***KULTUR ERANSKINA***

## *BIZKAIKO ABOKATUEN BAZKUNEKO "PEDRO IBARRETXE" PRAKTIKA JURIDIKOKO ESKOLAKO IKASLEEI TITULUAK EMATEA – ABOKATU LANBIDEAN HASTEKO MODALITATE ESKLUSIBOA*

*Joan den maiatzaren 7an, 2007-2008 ikasturtean "Pedro ibarretxe" Praktika Juridikorako Eskolan Modalitate Esklusiboa gainditu izanaren tituluak emateko ekitaldia egin zen Abokatuen Bazkunean. Modalitate hori Abokatuen Bazkunean ikasten da hamabost hilabetez.*

*Ikasle hauek lanbidean sartzeko ikasketak borondatez egingo dituzten azkenetakoak izango dira, 2011ko urrian Sarbide Legea indarrean jarriko baita.*

*Atsegina da ikustea tituluak jaso zituzten ikasle asko honezkero lanbidean aritzen direla eta epaitegietan askotan gurutzatzen ditugula.*

*Eskolako tituluaz gain, Lanbiderako Gaitasun Agiria (LGA) lortzeko proba ere gainditu izanaren diploma eman zitzaien, Abokatutzaren Kontseilu Nagusiak emanda. Modu horretan, etorkizunean zuzenbideko gradua gainditzen duen orok lanbidean aritzeko gainditu beharko duen proba aurretik egin dute ikasle hauek.*



*Tituluak emateko ekitaldia xumea eta atsegina izan zen. Ekitaldia Javier Cortázar Larracoechea dekanoordeak ireki zuen, eta ondoren Carlos Ais Conde azken urteetan Praktika Juridikorako Eskolako zuzendaria izan denari eman zion hitza. Azken horrek oraintsura arte ikasle izan dituenei erronka berriei konplexurik gabe eta apaltasunez aurre egiteko esan zien, betiere, prestakuntzaren ikuspuntutik.*

*Modu berean, zuzendariari urte hauetan guztietan abokatuen trebakuntzan izandako dedikazioa eskertzeko eta omenaldia egiteko modu xumea izan zen.*

*Ekitaldiaren amaieran, bertaratu guztiek luncha izan zuten Bazkunaren instalazioetan.*

## ENTREGA DE TÍTULOS A LOS ALUMNOS DE LA ESCUELA DE PRÁCTICA JURÍDICA "PEDRO IBARRECHE" DEL COLEGIO DE ABOGADOS DE VIZCAYA – MODALIDAD EXCLUSIVA DE INICIACIÓN AL EJERCICIO DE LA ABOGACÍA

El pasado 7 de mayo, un año más, se celebró en el Colegio de Abogados la entrega de los títulos acreditativos de haber superado durante el curso 2007-08 la Escuela de Práctica Jurídica "Pedro Ibarreche", Modalidad Exclusiva, que se imparte íntegramente en el Colegio de Abogados durante quince meses.

Esta promoción, es una de las últimas que llevará a cabo estos estudios sin que aún sean obligatorios para el acceso a la profesión, cuando entre en vigor la Ley de Acceso en octubre de 2011.

Es siempre agradable y entrañable el comprobar cómo muchos de los alumnos que retiraban sus títulos, son ya compañeros en ejercicio con los que nos encontramos habitualmente por los Juzgados.

Junto con el título de la Escuela, se les entregó también el diploma acreditativo de haber superado la prueba que les otorga el Certificado de Aptitud Profesional C.A.P., otorgado por el Consejo General de la Abogacía, adelantándose así a la prueba que en el futuro todo aquel que supere el grado en Derecho deberá aprobar para ejercer la profesión.

El acto de la entrega fue sencillo y como decíamos entrañable. Comenzó abriendo el acto nuestro Vice-Decano, Javier Cortázar Larracoechea, para posteriormente ceder la palabra al que durante los últimos años ha sido el Director de la Escuela de Práctica Jurídica, Carlos Ais Conde, quien se dirigió a los que hasta hacía poco habían sido sus alumnos, animándoles a afrontar sus nuevos retos sin complejos y con humildad y siempre bajo el prisma de la formación.

De igual manera fue ésta una forma modesta de homenajearle y agradecerle su extraordinaria dedicación a la formación de la abogacía alo largo de estos años.

Al finalizar el acto todos los asistentes pudieron disfrutar de un pequeño lunch en las instalaciones del Colegio.

# ENTREGA DE TÍTULOS DEL MASTER EN ABOGACÍA Y PRÁCTICA JURÍDICA DEL COLEGIO DE ABOGADOS DE VIZCAYA Y DE LA UNIVERSIDAD DE DEUSTO

El mismo día por la tarde se celebró también la entrega de los títulos de la promoción 2007-08 del Master en Abogacía y Práctica Jurídica que imparten conjuntamente el Colegio de Abogados de Vizcaya y la Universidad de Deusto.

A esta entrega asistieron los dos codirectores del Master, Gema Tomás y Aitzol Asla, el Decano de la Facultad de Derecho de la Universidad, Juan Echano y el Vicedecano del Colegio de Abogados, Javier Cortázar.

El acto se celebró en el Salón de Grados de la Universidad de Deusto y la clausura del curso corrió a cargo de Margarita Uría, vocal del Consejo General del Poder Judicial, quien habló a los nuevos titulados y a todos los presentes sobre "La Abogacía como partícipe del servicio público en la Administración de Justicia", destacando la función social de la Abogacía y la importancia de cumplir las funciones que a la misma le han sido encargadas por la sociedad.

Tras la entrega de los títulos, todos los asistentes se desplazaron a la nueva biblioteca de la Universidad de Deusto, donde tras una visita guiada por las magníficas instalaciones de este edificio pudieron disfrutar de un lunch de despedida.

# *BIZKAIKO ABOKATUEN BAZKUNDEKO ETA DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO ABOKATUTZA ETA PRAKTIKA JURIDIKOA MASTERREKO TITULUAK EMATEA*

*Egun berean, arratsaldez, Bizkaiko Abokatuen Bazkunak eta Deustuko Unibertsitateak elkarrekin antolatzen duten Abokatutza eta Praktika Juridikoa Masterreko 2007-2008 ikasturteko tituluak emateko ekitaldia egin zen.*

*Ekitaldi horretan Masterreko bi zuzendarikideak egon ziren, Gema Tomás eta Aitzol Asla, Juan Echano Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko dekanoa eta Javier Cortázar Abokatuen Bazkuneko dekanoordea.*

*Ekitaldia Deustuko Unibertsitateko Graduen Aretoan egin zen, eta ikastaroaren itxiera-ekitaldia Margarita Uria Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko kideak egin zuen. Azken horrek tituludun guztiei eta bertaratu guztiei "La Abogacía como partícipe del servicio público en la Administración de Justicia" hitzaldia eskaini zien. Abokatutzaren gizarte-eginkizuna eta gizarteak abokatutzaren esku utzitako eginkizunak betetzearen garrantzia azpimarratu zituen.*

*Tituluak eman ondoren, bertaratutako guztiak Deustuko Unibertsitateko liburutegi berrira joan ziren, eta eraikinean bisita gidatua egin ondoren, luncha izan zuten.*



## *NIK ERE ESKUBIDEAK DITUT. HAURREN ESKUBIDEEI BURUZKO FILM LABURREN NAZIOKO 1. LEHIAKETA ONLINE*

*Haurren Eskubideen Adierazpenaren urteurrena eta Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren XX. urteurrena direla bide, Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiak eta Espainiako Abokatuen 83 Elkargok, Haurtzaro Plataformaren laguntzaz, haurren eskubideei buruz telefono mugikorrarekin, PDArekin, webcamarekin, argazkikamerarekin edo bideoarekin grabatutako film laburren lehenengo lehiaketa online deitu dute, "Nik ere eskubideak ditut" lemapean. Espainiako hezkuntza-zentro publiko, itundu zein pribatuetan ikasten ari diren 6 eta 17 urte bitarteko gazte guztiei zuzenduta dago, bi adinak barne hartuta.*

*Haurren eskubideak bidezkoagoa eta solidarioagoa izan nahi duen munduan uko egin ezinezko helburuak dira. Haurrek helduen eskubide berberak dituzte, baita bestelako eskubide bereziak ere, haurrak izateagatik.*

*Lehiaketaren helburu nagusia haurren eskubideen berri ematea da haurrei eta gazteei, edozein leku eta egoeratan erabil ditzaten.*

*Hori dela eta, lehiaketa 6 eta 17 urte bitarteko gazteei bideratuta dago, bi adinak barne hartuta, kategoria hauetan banatuta:*

- *6 – 12 urte*
- *13 – 15 urte*
- *16 eta 17 urte*

*Parte-hartzaile guztiek gurasoen edo legezko tutoreen baimen idatzia izan behar dute, izena emateko inprimakian datuak adierazi behar dituzte eta postaz hona bidali:*

*"NIK ERE ESKUBIDEAK DITUT" lehiaketa*
*ESPAINIAKO ABOKATUTZAREN KONTSEILU NAGUSIA*
*Recoletos pasealekua 13*
*28004 MADRIL*

*Film laburrak haurren eskubideei, oro har, eta Haurren Eskubideen Adierazpeneko printzipioren bati edo Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren artikuluei buruz, zehazki, izan behar dira.*

*Film laburrak ekipoan egin behar dira eta gutxienez bi eta gehienez bost parte-hartzaile izango dituzte, eta lana abalatuko duen irakasle, guraso edo tutore batek koordinatuko ditu.*

*Pelikuletan haurren eskubideak **modu positiboan** erakutsi behar dira. Etnien eta kulturen aberastasuna eta aniztasuna erakustea komeni da, eta mota guztietako bereizkeriak baztertu behar dira.*

*Parte-hartzaileek berariaz onartzen dute onartutako lan guztiak helbide honetan ikusi ahal izatea www.yotambientengoderechos.com.*

## YO TAMBIEN TENGO DERECHOS. PRIMER CONCURSO NACIONAL ONLINE DE CORTOS SOBRE LOS DERECHOS DEL NIÑO

Con motivo del L Aniversario de la Declaración de los Derechos del Niño y del XX Aniversario de la Convención sobre los Derechos del Niño, el Consejo General de la Abogacía Española y los 83 Colegios de Abogados de España, con la colaboración de la Plataforma de Infancia, convocan el Primer Concurso Online de Cortos rodados con teléfono móvil, PDA; Webcam, cámara de fotos o de vídeo sobre los Derechos del Niño bajo el lema "Yo también tengo derechos", dirigido a todos los jóvenes de entre 6 y 17 años, ambos inclusive, que cursen estudios en centros educativos españoles públicos, concertados o privados.

Los derechos del niño son un objetivo irrenunciable en un mundo que aspira a ser más justo y más solidario. Los niños y las niñas tienen los mismos derechos que los adultos, pero también tienen derechos especiales por el mero hecho de ser niños.

El objetivo fundamental del Concurso es dar a conocer los derechos de la infancia a los propios niños, niñas y jóvenes para que sean capaces de hacerlos valer en cualquier lugar y situación.

Por ello el concurso va dirigido a jóvenes de entre 6 y 17 años, ambos inclusive, con arreglo a las siguientes categorías:

- 6 a 12 años
- 13 a 15 años
- 16 y 17 años

Todos los participantes deberán contar con la autorización de sus padres o madres o tutores legales, debiendo indicar sus datos en el formulario de inscripción, y enviarlo por correo a:

Concurso "YO TAMBIEN TENGO DERECHOS"
CONSEJO GENERAL DE LA ABOGACÍA ESPAÑOLA
Pº Recoletos 13
28004 MADRID

Los cortos deberían versar sobre los derechos de la Infancia en su conjunto o específicamente sobre alguno de los Principios de la Declaración de los Derechos del Niño o de los artículos de la Convención sobre los Derechos del Niño.

Los cortos se deberán realizar en equipo, formado por un mínimo de dos participantes y un máximo de cinco, coordinados por un profesor/a, padre o madre tutor/a, que avalará el trabajo.

Las películas deben mostrar los derechos de la infancia de forma positiva. Se recomienda mostrar la riqueza y diversidad de etnias y culturas y rechazo a cualquier forma de discriminación.







Los participantes autorizan expresamente que todos los trabajos admitidos se puedan visualizar en: www.yotambientengodrechos.com.

En cuanto a los requisitos técnicos de los cortos, estos deben ser originales, con una duración máxima de 2 minutos y sólo podrán haber sido grabados con la cámara de un teléfono móvil, Webcam, PDA, cámara fotográfica o de video digital, pudiendo luego si se desea editarse con herramientas externas, pudiendo además ser grabados en cualquiera de las lenguas oficiales de España.

Las obras se pueden enviar en cualquier formato de video digital, con un peso máximo de archivo de 15 MB.

Para participar hay que seguir dos pasos:

- Rellenar el formulario que encontrarás en la Web www.yotambientengoderechos.com, imprimirlo y enviarlo junto a las Autorizaciones de Utilización de Imágenes de cada uno de los menores de 18 años que participe en el corto. Es imprescindible que se firme dicha autorización por los padres, madres o tutores.
- Subir el video.

El plazo para enviar los cortos finalizará el 30 de Junio de 2009.

Los cortos se registraran y subirán a través de la Web www.yotambientengoderechos.com en la sección "Sube tu video" antes del 30 de mayo de 2009. En el registro Web del corto habrá que indicar el nombre de al menos un adulto responsable de grupo al que contactar si fuera necesario, bien sea el profesor/a, padre, madre o tutor/a legal de alguno de ellos, los nombres de los participantes, el título del trabajo, así como los datos de contacto.

Se primará especialmente el trabajo en equipos formados por varios jóvenes con un profesor o tutor adulto.

*Film laburren betekizun teknikoei dagokienez, originalak izan behar dira, gehieneko iraupena 2 minutukoa izango da, eta telefono mugikorraren, PDAren, argazki-kameraren edo bideo digitalaren kamera batekin soilik grabatu daitezke, eta gero, nahi izanez gero, kanpoko erremintekin editatu daitezke. Film laburrak Espainiako hizkuntza ofizialetako edozeinetan grabatu daitezke.*

*Lanak bideo digitalaren **edozein formatutan** bidal daitezke, eta **artxiboaren gehieneko pisua 15 MB izango da.***

*Parte hartzeko, bi pauso eman behar dira:*

- *www.yotambientengoderechos.com web helbideko inprimakia bete, inprimatu eta film laburrean parte hartzen duten 18 urtetik beherakoen irudiak erabiltzeko baimenekin batera bidaltzea. Ezinbestekoa da baimen hori gurasoek edo tutoreek sinatzea.*
- *Bideoa igotzea.*

*Film laburrak bidaltzeko epea 2009ko ekainaren 30ean amaituko da.*

*Film laburrak www.yotambientengoderechos.com web helbidetik erregistratu eta igoko dira "Igo zure bideoa" atalean, 2009ko maiatzaren 30a baino lehen. Film laburra webean erregistratzean, hurrengo hauek adierazi behar dira: taldearen ardura duen heldu baten izena gutxienez, behar izanez gero berarekin harremanetan jartzeko, irakaslea, aita, ama zein legezko tutorea izan, parte-hartzaileen izenak, lanaren izenburua, eta harremanetarako beste datu batzuk.*

*Zenbait gaztek irakasle edo tutore heldu batekin osatutako ekipoen lana modu berezian baloratuko da.*

## *PROFESIONALENTZAKO PRESTAKUNTZA-JARDUNALDIA: "GIZONAK BERDINTASUNAREN ERRONKAREN AURREAN"*

*Datorren ekainaren 11n egingo da, goizeko 9:00etatik 19:00etara, Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuko Ekitaldien Aretoan (Uribitarteko aldapak, 3. zk., Bilbo). Jose Angel Lozoyak "Empoderamiento e Igualdad" lana aurkeztuko du, Luis Boninok "Resistencias masculinas al cambio por la Igualdad", Ritxar Bacetek "Papel de los hombres en el empoderamiento de las mujeres", Josetxu Rivierek "Igualdad y Seguridad Laboral"; eta Dominique Saiyardek "Igualdad y Derechos Humanos". Moderatzaileak Ander Bergara eta Lucía Martínez Odriozola izango dira. "GIZONDUZ" kanpaina babesten politikaren, kulturaren eta enpresaren munduko izen handiko pertsonak egotea espero da.*

*Informazio gehiago nahi izanez gero eta izena emateko, jo www.hombresigualdad.blogspot.com helbidera edo Deustu – San Ignazioko Modulu Psikosozialeko Emakumeen Zerbitzura.*
*Agoitz plaza z.g. 48015 Bilbo.*
*Tel.: 94 475 94 72. Fax 94 475 31 20.*
*Email: servimujer@telefonica.net.*

*Antolatzaileak: Deustu eta San Ignazioko Modulu Psikosoziala, Emakundek, BBK-k eta Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkunak lagunduta.*

## JORNADA DE FORMACION DE PROFESIONALES TITULADA "HOMBRES ANTES EL RETO DE LA IGUALDAD"

Tendrá lugar el próximo día 11 de Junio entre las 9:00 h, y las 19:00 h. en el Salón de Actos del Colegio de Abogados de Bizkaia (Rampas de Uribitarte, nº 3, Bilbao). La presentación de las Ponencias irán a cargo de Jose Angel Lozoya, con el tema "Empoderamiento e Igualdad", Luis Bonino con el título "Resistencias masculinas al cambio por la Igualdad", Ritxar Bacete con el tema "Papel de los hombres en el empoderamiento de las mujeres", Josetxu Riviere con el tema "Igualdad y Seguridad Laboral"; Dominique Saiyard presentará "Igualdad y Derechos Humanos". Moderación a cargo de Ander Bergara y Lucía Martínez Odriozola. Se espera la presencia testimonial en apoyo de la Campaña "GIZONDUZ" de personalidades de la política, cultura y empresa.

Para más información e inscripciones dirigirse a la dirección www.hombresigualdad.blogspot.com, o bien al Servicio de Mujer del Módulo Psicosocial de Deusto – San Ignacio.
Plaza Aoiz s/n. 48015 Bilbao.
Tel. 94 475 94 72. Fax 94 475 31 20.
Email: servimujer@telefonica.net.

Organiza: Módulo Psicosocial de Deusto y San Inazio, con la colaboración de Emakunde, BBK y Colegio de Abogados de Bizkaia.

## *BAZKUNEKO TXARTELA ETA IRAKURGAILUA*

*Abokatutzaren Proiektu Teknologikoaren barruan, 2009. urtean txartel kriptografikoek (Bazkuneko txartela) eta horien irakurgailuak diru-laguntza gehiago ez jasotzea aurreikusita zegoen. Kostua txartela eskuratzeko interesa zuen erabiltzaileak ordaindu beharko zuen.*



*Beraz, 2009ko ekainaren 1etik, ACA ziurtagiri digitala duen txartel berria eskatu nahi duten elkargokide guztiek edo Bazkuneko txartel berria behar dutenek (aurrekoa galdu dutelako edo beste arrazoiren bategatik) edo irakurgailu berria eskuratu nahi dutenek, kopuru hauek ordaindu beharko dituzte:*
- *Txartel kriptografiko berria: 20 €*
- *Irakurgailu berria: 17 €*

## CARNET COLEGIAL Y LECTOR

Dentro del Proyecto Tecnológico de la Abogacía estaba previsto que para el año 2009 se dejasen de subvencionar las tarjeta criptográfica (carné colegial) y el lector de las mismas, debiendo correr con dicho costo cada nuevo usuario que desease adquirirla.

Así pues, desde el 1 de junio de 2009, todos los colegiados que deseen solicitar la emisión del nuevo carné colegial con certificado digital ACA, o que necesiten cualquier gestión que implique la expedición de un nuevo carné colegial debido a extravío u otro motivo, o deseen adquirir un nuevo lector, deberán abonar las siguientes cantidades:
- Por una nueva tarjeta criptográfica : 20 €
- Por un nuevo lector: 17 €

El importe deberá abonarse en la primera planta del colegio con anterioridad a la solicitud de la nueva tarjeta o adquisición de un nuevo lector.

Como viene realizándose hasta ahora, en el momento de la emisión se explicará su instalación y puesta en marcha en nuestros ordenadores, así como todas posibilidades que ofrece su utilización.

*Zenbateko hori Bazkuneko lehen solairuan ordaindu behar da, txartel berria eskatu edo irakurgailu berria eskuratu aurretik.*

*Orain arte bezala, txartela ematean gure ordenagailuetan nola instalatu eta abian jarri behar den azalduko da, baita txartelaren erabilerak eskaintzen dituen aukera guztiak ere.*

## EXPOSICIÓN DE LA OBRA "PECERAS" DE JOSÉ LUIS TOLOSA

El próximo jueves 4 de Junio se inaugurará la exposición que estará abierta al público en la Sala Eduardo escribano del I.C.A.S.V.desde el 28 de Mayo al 24 de Julio

"Busco en esta serie realizar unas melodías. Cada cuadro está compuesto a la manera de una canción que combina un poema con una música.



Se conjugan para evocar más que para describir por lo que, aunque se trate de una historia de peceras, la ausencia descriptiva orienta hacia la evocación, la metáfora, el símbolo…

En lo que respecta a la forma, se manifiesta la repetición de un único elemento. No es absolutamente idéntico en cada una de sus manifestaciones, pero sí lo suficiente como para que el carácter de módulo persista. La manifestación del elemento formal, que se repite un número variable de veces en cada composición, se encuentra hilvanada por el color y por el ritmo que configuran un azaroso recorrido."

## *JOSÉ LUIS TOLOSAREN "PECERAS" LANAREN ERAKUSKETA*

*Datorren ekainaren 4an, BJABOko Eduardo Escribano Aretoan, "Peceras" erakusketa inauguratuko da, eta jendearentzat maiatzaren 28tik uztailaren 24ra irekita egongo da.*

*"Segida honetan melodia batzuk gauzatu nahi izan ditut. Koadro bakoitza abesti baten antzera osatuta dago, poema bat eta musika bat konbinatuz.*

*Biak gogoratzeko elkartzen dira, deskribatzeko baino gehiago. Hori dela eta, arrainontzien istorioa izan arren, deskripziorik ez egoteak oroitzapenera, metaforara, sinbolora… garamatza.*

*Formari dagokionez, osagai bakarra errepikatzen da. Agerpen guztietan ez da guztiz berdina, baina bai modulu-izaerak irauteko beste. Osagai formala konposizio bakoitzean zenbait aldiz errepikatzen da, eta lokarriak kolorea eta erritmoa dira, ibilbide gorabeheratsua osatuz."*

## IRAGARKI TAULA
## TABLÓN DE ANUNCIOS

SE ALQUILA DESPACHO céntrico, en Alameda Mazarredo, frente al Colegio de abogados. Abogados, procuradores, economistas.
Interesados, llamar al 944 23 94 09 o al 600 41 49 85

SE ALQUILA DESPACHO en Barakaldo calle Bizkaia, junto a los Juzgados y boca de metro de los Fueros. Interesados llamar al 944 37 20 12.
E-mail: angelmartinbelloso@icasv-bilbao.com

*BULEGOA ALOKAGAI, Bilboren erdi-erdian, Mazarredo Zumardian. Abokatuen Bazkuna du aurrez aurre. Abokatu, prokuradore edo ekonomialarientzat aproposa.*
*Tel.: 944 23 94 09 eta 600 41 49 85*

*BULEGOA ALOKAGAI, Barakaldoko Bizkaia kalean, epaitegien eta Foruak. metro-geltokiaren ondoan.*
*Tel.: 944 37 20 12.*
*Email: angelmartinbelloso@icasv-bilbao.com*

# *ADINEKOEN ZUZENBIDEARI BURUZKO IKERLAN TALDEA SORTU DA*

*Orain dela aste batzuk Bazkuneko Adinekoen Zuzenbideari buruzko Ikerlan Taldea eratu zen. Hemendik gure gonbitea luzatu nahi dizuegu lantaldean parte hartu dezazuen: bertan adinekoen arazo berezietan sakondu nahi dugu, izan ere, gizartea zahartzen ari denez, gero eta adineko gehiago daude eta horiek irtenbideak behar dituzte euren gatazkak konpontzeko eta estatu juridiko egokia izateko.*

*Bide batez, 2009KO EKAINAREN 26AN INDARREAN SARTUKO DEN LEGE BERRIKUNTZA gogorarazi nahi dizuegu, hain zuzen, 1/2009 LEGEA. Lege horrek hurrengo lege biak eraldatuko ditu: 1957ko ekainaren 8ko legea -Erregistro Zibilari buruzkoa, ezgaikuntza, tutoretza kargu eta babestutako ondareei dagokienez- eta 41/2003 legea -desgaitasuna duten pertsonen ondarea babestekoa eta helburu horrekin Kode Zibila, Prozedura Zibileko Legea eta zerga arautegia aldaraztekoa- (Argitalpena: EAOren 73. zk., 2009ko martxoaren 26koa. Indarraldia: aurtengo ekainaren 6tik aurrera).*

*Aldakuntza horren xedea Erregistro Zibila publizitate tresna egokia bihurtzea da, hain zuzen, bi helburu hauek lortzeko: euren burua gobernatzeko gai ez diren pertsonen ezgaitze judizialaren arautegia behar bezala betetzen ari dela ziurtatzea eta halako pertsonentzako babes neurri den babestutako ondarearen erakundea martxan jartzea.*

# CONSTITUCIÓN DEL GRUPO DE ESTUDIOS DE DERECHO DEL MAYOR

Hace unas semanas se constituyó en el Colegio el Grupo de Estudios de Dº del Mayor Os animamos a incorporaros al mismo a todos aquellos que estéis interesados en la profundización en la problemática especifica en la que se ve inmersa este colectivo, cada vez mas numeroso, por el envejecimiento demográfico de la sociedad y que necesita soluciones determinadas para sus conflictos y su status jurídico.

En este sentido os anunciamos la **REFORMA LEGAL QUE ENTRARÁ EN VIGOR EL 26 DE JUNIO DE 2009: LEY 1/ 2009 DE 26 DE MARZO** de reforma de la Ley de 8 de junio de 1957, sobre el Registro Civil, en materia de incapacitaciones, cargos tutelares y administradores de patrimonios protegidos, y de la Ley 41/2003, de 18 de noviembre, sobre protección patrimonial de las personas con discapacidad y de modificación del Código Civil, de la Ley de Enjuiciamiento Civil y de la normativa tributaria con esta finalidad. *(BOE 73 DE 26-3-2009.Entrada en vigor 26-6-2009)*.

Se pretende, que el Registro Civil actúe como un mecanismo de publicidad para supervisar la efectiva aplicación de la normativa relativa a la incapacitación judicial de personas que no pueden gobernarse por sí mismas, así como facilitar la efectiva puesta en práctica de la figura del patrimonio protegido, como medio de protección patrimonial de las personas con discapacidad.



# CENA-COLOQUIO CON EL FISCAL ALEJANDRO TORÁN

EL pasado jueves 23 de abril, organizado por la Agrupación de Jóvenes Abogados, tuvo lugar cena-coloquio en que se contó con la intervención del ponente-invitado el Fiscal Alejandro Torán.

Expuso los criterios e instrucciones de Fiscalía sobre las ejecuciones en materia penal y penitenciaria, requisitos y circunstancias a valorar en orden a la concesión de suspensiones, sustituciones de condenas penales; así como de posibles beneficios penitenciarios (permisos, tercer grado, ...), según naturaleza del delito y cumplimiento de la condena.

Además de ello, conocimos aspectos de acceso a la carrera fiscal y organización del Ministerio Fiscal.

Todos los compañeros y compañeras participantes, tanto los que ya han acudido a anteriores cenas-coloquio, como quienes asistieron por primera vez, nos comprometimos a repetir este tipo de actividades en un futuro.

Finalmente, quienes estuvimos queremos agradecer al ponente el compartir sus conocimientos jurídicos desde el punto de vista de la Fiscalía y el participar en este encuentro que resultó tan agradable.

# *AFARI-SOLASALDIA ALEJANDRO TORÁN FISKALAREKIN*

*Joan den apirilaren 23an, Abokatu Gazteen Taldeak antolatuta, afari-solasaldia egin zen, eta Alejandro Torán fiskala hizlari gonbidatua izan zen.*

*Fiskaltzaren irizpideak eta instrukzioak azaldu zituen zigor eta espetxe arloan, eteteak, zigor-kondenen ordezpenak lortzeko betekizunak eta baloratu beharreko inguruabarrak; baita balizko espetxe-onurak ere (baimenak, hirugarren gradua...), delituaren izaeraren eta kondena betetzearen arabera.*

*Horrez gain, karrera fiskalean sartzeko kontuak eta Fiskaltzaren antolaketa ezagutu genituen.*

*Parte-hartzaile guztiek, aurreko afari-solasaldietara etorri direnek zein lehenengoz etorri zirenek etorkizunean ere mota horretako jarduerak errepikatzeko konpromisoa hartu genuen.*

*Amaitzeko, parte-hartzaileek hizlariari eskerrak eman nahi dizkiogu ezagutza juridikoak azaltzeagatik Fiskaltzaren ikuspuntutik, eta topaketa atsegin horretan parte hartzeagatik.*




IMQ Abogados

¿qué es lo que buscas para tu salud?

Por ser del Colegio de Abogados, **IMQ** te ofrece una asistencia sanitaria a medida para ti y tu familia: médicos a tu elección, sin esperas, clínicas nacionales e internacionales, atención personalizada, rapidez en consultas, centros propios...

**Exclusivo Colegio de Abogados**
desde **39,72 €**/persona/mes

- **Descuentos:** 5% para pólizas con 4 beneficiarios y 10% para pólizas con más de 4 beneficiarios. 5% por pago anual y 3% por pago semestral.
- **Aprovecha las ventajes fiscales** porque los gastos del seguro médico pueden ser decucibles.

Información y contratación
902 311 902
agencia@imq.es
www.imq.es

IMQ
Tu seguro médico

# *ADMINISTRATZAILEEN ORDAINSARI KENGARRIAK*

# DEDUCIBILIDAD DE LAS RETRIBUCIONES A LOS ADMINISTRADORES

**Gonzalo Apoita.** *Abokatu-Ekonomista* / Abogado-Economista.

*Joan den urtarrilaren 12an, nazioko egunkari baten bertsio autonomikoaren azalean, iritzian eta erdialdeko orrialdeetan adierazitakoaren arabera, Auzitegi Gorenak, "argitaratzear zeuden" bi epaitan enpresek kontseilariei egindako ordainketetan mugak jartzen zituen.*

*Egunkariak eskainitako informazioa egiazkoa zen (hau da, epaiak argitaratzear zeuden, baina ez eduki hori), eta bi egun geroago, urtarrilaren 14an, asteazkena, Auzitegi Gorenaren 2008ko azaroaren 18ko bi epai argitaratu ziren. Auzitegi Gorenak muga zorrotzak ezarri zituen Sozietateen gaineko Zergan merkataritza-entitateetako administratzaileen ordainketari lotutako gastuak kengarriak ziren edo ez erabakitzeko.*

*Hasiera-hasieratik irakurleari gogorarazi behar zaio epaietan aipatzen zen Sozietateen gaineko Zergaren araudia indargabetuta zegoela eta gaur egun indarrean dagoen beste batek ordeztu zuela. Araudi berriak, printzipioz, desberdintasun esanguratsuak ditu gastu bat kengarri moduan hartzeari lotuta.*

*Ukitutako sozietateek (garagardo-industriako enpresa garrantzitsuenetakoa, katu handi eta haserre baten izen antzekoa duena, eta gure tenislari ospetsuenak defendatzen duen aseguru-etxea, "bakarra" delako), sozietate anonimoak biak, gizarte-estatutuetan ezarri zuten Administrazio Kontseiluko kideen ordainketa* "kopuru finko bat" *eta* "partaidetza mozkinetan" *izango zela, zenbatekoa eta kasuan kasuko ehunekoa Batzorde Nagusiaren esku utzita.*

*Bi epai horietan, Auzitegi Gorenak administratzaileen ordainsariekin lotutako gastua kengarria ez dela ezarri du, eta kengarritzat hartzeko, ordainsariak, kasu guztietan eta salbuespenik gabe, sozietatearen estatutuetan finkatuta egon behar du, eta beraz, gastua derrigorrekoa eta, beraz, nahitaezkoa. Hori dela eta, ordainsaria ziurtasunez finkatuta egon behar da, eta horretarako:*

- *Ordainketa-sistema finkatu behar da, eta ez da nahikoa estatutuetan ordainketa-sistema desberdinak jasotzea.*
- *Sistema aldakorra bada, ehunekoa behar den moduan zehaztuta egon behar da, eta ez da nahikoa gehieneko ehunekoa ezartzea.*
- *Kopuru finkoa bada, ez da nahikoa kopuru horren esistentzia edo beharra ezartzea; estatutuetan ordainsariaren quantuma ere ezarri behar da, edo, gutxienez, quantum hori ezarri ahal izateko irizpideak, zuhurtzirakotasunari tarterik utzi gabe.*

*Aipatu ebazpenek sortutako ziurgabetasun-egoeraren aurrean, Tributu Administrazioko Estatu Agentziako Finantza*

El pasado 12 de enero la versión autonómica de un diario de tirada nacional publicaba en su portada, en su editorial y en páginas interiores la noticia de que el Tribunal Supremo en dos sentencias *"que estaban a punto de ser hechas publicas"* ponía coto a los pagos de las empresas a sus consejeros.

Como era de esperar la información que ofrecía el diario era cierta (me refiero obviamente a la de que estaban a punto de publicarse las sentencias, no al contenido de lo publicado) y dos días después, el miércoles 14 de enero, se publicaban dos sentencias del Tribunal Supremo de fecha 18 de noviembre de 2008 en las que el Alto Tribunal establecía importantes cortapisas para admitir la deducibilidad en el Impuesto sobre Sociedades de los gastos relacionados con la retribución de los administradores de entidades mercantiles.

Hay que advertir al lector desde un principio que la normativa del Impuesto sobre Sociedades al tiempo al que se referían las sentencias ya ha sido derogada y sustituida por otra que es la actualmente vigente y que, en principio, mantiene diferencias sustanciales en lo relativo a la consideración de un gasto como fiscalmente deducible.

Las sociedades afectadas (una de las empresas más importantes de la industria cervecera que suena a gato grande enfadado y una aseguradora de la que nuestro tenista más laureado afirma que como ella no hay más que una), ambas sociedades anónimas, habían establecido en sus Estatutos Sociales que la retribución de los miembros de sus Consejos de Administración consistiría en *"una asignación fija"* y *"una participación en beneficios"*, dejando tanto el importe y como el porcentaje correspondiente a criterio de la Junta General.

El Tribunal Supremo establece en esas dos sentencias la no deducibilidad fiscal del gasto relacionado con las retribuciones de los administradores concluyendo que para que sea considerada gasto fiscalmente deducible la remuneración debe estar fijada, en todo caso y sin excepción alguna, en los Estatutos de la sociedad de forma que el gasto sea obligatorio y, por ende, necesario, por lo que la remuneración debe estar fijada con certeza, lo que requiere:

- La fijación del sistema retributivo, no bastando con recoger en los Estatutos los distintos sistemas retributivos.
- Si el sistema es variable, el porcentaje deberá estar perfectamente determinado, no bastando el establecer un porcentaje máximo.
- Si se trata de una asignación fija, no es suficiente con prever su existencia u obligatoriedad, sino que los Estatutos deben prever también el quantum de la remuneración o, al menos, los criterios para poder determinarla, sin ningún margen de discrecionalidad.

Ante la situación de incertidumbre creada por las mencionadas resoluciones, el Departamento de Inspección Financiera y Tributaria de la Agencia Estatal de la Administración Tributaria solicitó a la Dirección General de Tributos criterio acerca de si la vigente normativa del Impuesto sobre Sociedades admitía, y en qué condiciones, la deducibilidad de las retribuciones de los administradores de las sociedades mercantiles. Con fecha 12 de marzo de 2009 la Dirección General de Tributos emitió un informe con el que ha puesto fin a la polémica creada por las sentencias del Tribunal Supremo y ha sentado las bases para la deducción de ese tipo de gastos.

En su informe, la Dirección General de Tributos afirma que, con carácter general, la consideración como deducible de un gasto en el Impuesto sobre Sociedades obliga a realizar la valoración de tres requisitos: uno, que se califique como gasto a efectos contables, dos, que esté contabilizado en resultados y tres, que la normativa no establezca precepto específico alguno que se separe del criterio contable. Es decir, las partidas deducibles el Impuesto son los decrementos en el patrimonio neto del ejercicio, registrados contablemente, que no cuenten con reglas fiscales específicas.

La Dirección General de Tributos de la Secretaria de Hacienda señala en su informe que la aplicación de los criterios expresados con carácter general al supuesto concreto de la retribución de los administradores de sociedades mercantiles permite concluir que:

- La vigente normativa del Impuesto sobre Sociedades es más flexible en materia de deducibilidad de gastos que la normativa anterior, en la medida que admite la deducción de gastos que, si bien no son jurídicamente obligatorios, están relacionados con los ingresos y no tienen la consideración de liberalidad.
- Las retribuciones de los administradores se consideran un gasto realizado para la obtención de los ingresos de la entidad y no tienen la consideración de liberalidad.

